

KRESAL HAIZEA

Leire Vargas Nieto

Durango

2003

Eguzki-izpiek gogor jotzen dute udarak belztutako azala, baina amak jarri dizun txanoak begiak babesten dizkizu arrokaren ondoko putzuan jolastuten duzun bitartean. Putzuko ura belaunetaraino heltzen zaizu, eta epel dagoenez ez zaizu axola Ikerrek, beti bezain gogaikarri, zipriztinez blaitzen zaituenean.

Hondartza jendez gainezka dago. Beti etortzen zarete hondartza honetara txakurrak onartzen dituztelako; horrela, Txuri ere zuekin etor daiteke. Ikerrek etxean bakarrik utzi zuten egun batean bueltatzean korridoreko lurrean putzua aurkitu zutela kontatu zizun behin.

Putzutik irten eta harea umelean jarri zara gaztelu bat egiteko asmoz. Ontziaz baliatuz bi mailako bat egitea lortu duzu, eta lehen izekok eta biok batutako oskol eta maskorrek jarri dizkiozu apaingarri erara.

Entzun dituzun oihuek Iker hurbil dabilela ohartarazi dizute, eta buruaz atzera begiratzean

korrika zugana datorrela ikusi duzu. Ezkerrera mugitu zara pixka bat, badaezpada ere, bera eta gazteluaren artean jarriz zure sorkuntza babesteko.

–Ane, gaztelua egin duzu! –adierazi dizu Ikerrek.

–Bai. –erantzun diozu, zer esan ongi jakin gabe.

–Polita da, baina horrela edozein erasorekin apurtuko da. Krokodilodun erreten bat egingo diot inguruan, babesteko. Eta harresi bat!

Ezetz, horrela gustatzen zaizula esateko aukera eman barik, belauniko jarri eta harresia eraikitzen hasi da. Eta zu, beste behin, hitzik gabe geratu zara, galdetu gabe hasitako “hobekuntza” delako hori nola amaituko. Haizearen kresal usainak lasaitu egiten zaitu.

Nagusiak eguzkia hartzen ari diren hondartza aldetik izeko eta ama hurbiltzen dabiltzala ikusi duzu. Argazki kamera dauka amak eskuetan; uda heldu eta, halako batean, urte osoan ahaztuta izan ostean hartaz gogoratu dela dirudi, eta banaezin bihurtu dira orain.

–Hara, hau bai gaztelu polita egin duzuen! Jarriko zarete biok inguruan argazkia ateratzeko? –proposatu dizue amak.

Gaztelura begiratu eta Ikerrek bere harresia ia bukatu duela deskubritu duzu, eta harresiaren behealdean kokatu dituzun maskorrak estaltzen dituela. Hala ere, eraikinaren ondoan hankak tolestuta jarri eta irribarre egiten saiatu zara. Iker gazteluaren beste aldean belaunikatu da, kamerari ahoaz keinu inozoa eginez.

–Begira nola jarri diren biak, Tania! –oihukatu du izekok bi umeoi begira, amak argazkia ateratzen zuen bitartean– Hau bai bikote polita! *Nobioak* zarete, ezta? –galdetu dizue, irribarretsu, zuekin hitz egiteko bakarrik baliatzen duen kutsu horrekin.

Iker eta biok isilik geratu zarete.

2009

Uda-eguneko beroa azalean itsasten zaizu lekeda bailitzan, eta hondartza-aulkiaren azpialde urdinen patroiak azala markatzen dizu. Inbidiaz ikuskatzen dituzu bainu-hartzaileak, olatuetan barrena saltoka eta barrezka.

Jada aspertu zara irakurtzeko ekarri duzun liburuaz, eta entzungailuek bidaltzen dizuten musika ez da nahikoa guztiz entretenitzeko. Ur-kiroletarako tartearen ondoan mutil talde bat adarbakar puzgarri erraldoi batekin jolasten dabil, eta horiei erreparatu diezu zure egoera tamalgarriaz ahazteko saiakeran. Bainatzea gustatuko litzaizuke, baina ezin; hilerokoa daukan kuadrillako lehena izan behar zinen zu, hondartza egunetan praka laburrak kendu barik lehorretan geratzen dena.

Behera ez begiratzeko esfortzu berezia egiten ari zara, azken hilabeteetan hasi zaizkizun bular arrotz haiekin topo ez egiteko. Eta, zauriaren gainean pikoa, hainbeste gorroto dituzun kotoizko bainujantzi horietako bat jarri behar izan duzu, dirudieenez orain horietakoak bakarrik egiten baitituzte tamaina honetan. Umetasuna oraindik guztiz

galdu gabe sentitzen duzu haurtzaroaren nostalgia, haizearen kresal usainarekin batera; gorpuzak halako batean hartu duen forma honek nagusi egingo bazintu bezala. Baina zuk betikoa izaten jarraitzen duzu. Ane, eta besterik ez.

Neska bikote bat oinez igaro da zure aurretik. Zu baino urte batzuk nagusiagoak direla esango zenuke, eta haietako batek zuk bezalako bikinia darama. Guztiz desberdina dirudi beragan, oihalaren koloreak azal ilunduaz egiten duen kontrastean, mokorra besarkatzen dion moduan. Eta, bat-batean, neskarengana joan eta zure burua aurkezteko bulkada sentitzen duzu, haietako bat izateko nahia.

Mutilei gustatzen zaie, esan zizun Juneke zure arazoa aitortu zenionean, horrek guztia aldatuko balu bezala. Mutilei zure itxura berria gustatzeak ispi-luan begiratu eta zure burua ez ezagutzea axolagabea egingo balu bezala, *zuk* gustuko izatea baino garrantzitsuagoa balitz bezala.

2012

Haize hotzak aurpegian jotzen zaitu, eta sorbaldak goratzen dituzu, neguko jaka potoloan gorputz eta buru sartu nahiko bazenitu bezala. Jakan sartu ez, baina batzuetan nahiago zenuke olatuek oso-osorik irentsiko bazintuzte.

Logelan sartuta muinak urtzeari utzi eta bizikleta hartu duzu; hondartzako aldapan beheara haizeak oraindik begietan zenituen malkoak sikatu dizkizu. Txikitatik ezaguna den lekura heldu zara, hartutako norabidea pentsatu ere egin gabe, biri-

kek kresalaz tindatutako haizea beharko balute bezala berriz ere lasai arnasteko, bularreko presioa apaltzeko.

Telebistako berri baten aurrean aitak egindako destainazko komentario bat errepikatzen duzu behin eta berriz buruan, zutaz zebilela eta zutaz zebilela, eta zutaz ez bazen, *zu bezalako jendeaz*. Zu bezalakoak al ziren duela hilabete batzuk ekaineko egun hartan *Teleberrin* agertu ziren ostadarrez jantzitako neska horiek?

Hainbeste gustatuko litzaizuke ezetz esan ahal izatea... ezetz, gelako beste neska guztien modukoa zarela, denek espero duten bezalako, *normala*. Txikitatik imajinarazi dizuten bizitza biziko duzula jakitea, arauaren barruan dagoen bizitza, egunero telebistan, liburuetan eta aldizkarietan ikusten duzuna. Ezagutzen duzun inork lehen begiratuan epaitu eta onargarria ez zarela erabakitzearen beldurrik gabe bizitzea, munduko egitura osoa zu bezalako jendearentzat eraikia izatea.

Behin eta berriz saiatu zara, zeure kolporako hurrengoan hobeto joango dela errepikaturaz, hau edo bestea aitzakia hartuta zure burua engainatu nahian. Nahasita zaudela, dauzkazun *dudak* deuseztatuko dituen mutila helduko dela. Behin eta berriz, azal azpiko inurriak imajinatu izana desiratzean; *ez, ez, ahaztu ezazu hori; dena errazagoa izango da horrelako ezer sentitzen ez baduzu...*

Baina ezin bularreko bulkadari uko egin. Ezin ezpain gorridun irribarre hori irabaztean oinetako atzamarretara arte heltzen zaizun berotasun-ola-

tuari entzungor egin. Ezin begiak aurpegira begira mantendu bainujantzi berde hori janzten duenean, edo eskuak geld izan ondoan daukazunean...

Ikerrekin bukatu zenezakeen, izekok duela bizi oso bat hondartza honetan bertan proposatu zuen bezala. Horrek familia osoari, lagun guztiei, mundu osoari azalpenak emateko eta haien gaitzespen aurpegiak ikusteko beharra saihestuko luke. Agian urtez urte ikusezinarena eginez sentitzen duzuna desagertuko litzateke. Agian sentitze-ko duzun gaitasun osoa agortuko litzateke, korronteek urertzean aurkitzen duten guztia berengantzen duten moduan. Ez dakizu zer den desiragarriagoa.

Olatuek irenstea nahiko zenuke, eraikitzen ari zaren nahasmen-gaztelu hau urperatuz, Atlantidako zibilizazioa bezala, itsasoan betiko galduta. Hondartza, garai honetako egun gehienetan bezala, hutsik dago. Ez dago begirik egiten duzuna zelatatze-ko.

Salto batez saihets arteko korapilo hau aska zenezakeen. Inork inoiz aurkitu barik itsas hondotan, oskol eta algez inguratuta, loak hartu.

2017

Itsasoa bare-bare dago, eta jendez gainezka. Ainhoaren pasta-entsaladak beti dira bikainak, baina zapore berezia daukate hondartzan, haizearen gatz arrastoak indartuko balu bezala.

Bazkalostean uretara lasterketa egiten duzue, txikitan beti azaltzen zizueten digestioaren lehen

30 minutuen araua gogoratu. Epel dago ura, inoiz baino epelago; itsasoa sorbaldaraino estaltzen zaituzten burusi berdea da. Berde bizi, sakon honek Ainhoaren begien imitatzaila dirudi; ez daki haien ausardia, haien indar eta haien sentikortasunik gabe ez luketela edozein baso eta edozein mendiren kolorea goitituko.

Eskutik hartzen zaituenean existitzen zirenik ere imajinatzen ez zenuen bazterretara heltzen zaizkizu kilimak, eta daukazun zorteak olatu erraldoi batek bezala jotzen zaitu. Ainhoarekin zaude, hemen, eskutik hartuta, aske. Munduko zaporerik gozoena aurkitu duzu bere ezpainetan eta etxez kanpoko etxe bat bere besoetan.

Eta tarte baterako bada ere, zer? Horrelako momentuak dira garrantzia daukatena, memoriaren tiraderan betirako gordeta gelditzen diren argazkiak.

Eskutik hartuta ibilaldi luzeak egiten dituzue urertzetik, oskolak batuz. Oskol moreen bilduma egiten zabilzate Ainhoaren egongelako apalean, bidaietako argazkien ondoan jartzeko. Nepal, Thailandian, Guatemalan... egona da, eta batera egingo dituzuen beste hainbeste bidaiatarako planez betetzen zabilzate ametsen kaiera.

Pozik zaude, inoiz baino pozago. Unibertsitateko lehen urteak berriro hasteko aukera eman dizu, nor zaren eta nora zoazen erabakitzeko, itsaso ezezagun batean zein ertzetan gelditu nahi duzun pentsatzeko. Eta zure burua den bezala aurkezteko, inori barkamena eskatu gabe.

Eta, halako batean, ulertze horretan, duela urte batzuk leku honetan bertan zeundela, irensten zintuzten sentimenduak eta atsekabeak gogoratzen dituzu, inondik ere atsekabeak ez direla konturatuta, arau orokorra ez betetzea ez delako nahi eta nahi ez negatiboa izan behar, disfrutatzen ikasi behar den gauza baizik.

Eta eskerrak ematen dizkiozu zeure buruari, momentu horretan hain ausart edo hain koldar izateagatik, geratzen zitzaizun sen on apurra joaten utzi beharrean oin azpiko lur zatitxoari ondo eusteagatik; barne-barnean bada ere, momentu hobekak etor zitezkeela pentsatzeagatik. Izan ere, gauzak hobetuko direla sinistea da batzuetan egin dezakegun ausartena.